

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroa behar eta arazo berdintsuak dituzten kontsumitzaileek osaturiko taldea izango da. Kotxean segurtasun handia nahi duten pertsonentzat bereziki; Gure erosleak gehien bat, kotxe oso seguruak behar dituzte, izan ere, autoen barnean balorezko gauzak gordetzen dituzte, esate baterako, diru kantitate handiak, eta hauek babestu behar dituzte.


Gure erosleak autoetan segurtasun handia behar duten pertsonak izango dira, esate baterako: enpresa handi batean garraioan lan egiten dutenentzat, kotxearen barnean balio handiko produktuak esportatu edo inportatu behar dutenentzat...

Hasteko Volvo kotxe marka ez denez gaur egun merkatuan dagoen kotxerik merkeena, gure bezero potentziala estatus maila erdi-altua duten pertsonak dira.

Nahiz eta gure helburua ahalik eta ezagunena eta arrakastatsuen izatea den, Volvo-k bere onurarako prestigioa irabazten du. Segurtasuna gauza oso garrantzitsu eta serioa da gaur egun, lapurketa kasuak oso altuak direnez, enpresa aurrera eramatea erabaki dugu.

Bideragarria den edo ez jakiteko, gure enpresak inkesta bat egin du Volvo kotxea erosi behar duten bezeroei eta hau da erantzuna:

Bideragarria al da autoetan pertsianak jartzea?



Erantzuna oso positiboa dela ikusirik, ondoriozta dezakegu bideragarria aterako zaigula negozioa dudarik gabe.